

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

2087

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 7koa, Jaurlearitzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2025. urtean gehienez emango diren diru-kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2025. urterako dagokion aurrekontu-muga.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen xedea da pertsonak baztertzeko arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonal, sozial eta laboraleko egoerak arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta behar adina baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomikorik ez dutenak gizartean erabat sar daitezen sustatzea, eta horren osagaien artean daude gizarte-larrialdietarako laguntzak (aurrerantzean, GLL).

Larrialdietarako laguntzaren kontzeptuaren gakoa da, hain zuzen ere, kanpoko edo ustekabeko arrazoiak tarteko, une jakin batean (aldi baterako) baliabide ekonomikorik ez izatea edo urriak izatea premia larriko egoera bati aurre egiteko. Egoera horiei erantzun egin behar zaie herrialdean dagoen ongizatearen arabera bizi ahal izateko eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarrerak bermatzeko errentaren laguntzen gehieneko muga arabera bizimoduari eutsi ahal izateko.

Ustekabeko gertakari batek eta aldizka dirulaguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdietako egoera ekonomikoetara erantzun nahi zaie. Pertsonen bizitzan zehar, egoera jakin batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Lehen mailako gabeziak edo eskasiak dakartzaten egoerak ekiditeko baliabide aringarri modura erabiltzen dira GLLak.

Laguntza horiek emateari dagokionez, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 58. artikulua xedatzen du gizarte-larrialdietarako laguntzak gizarte-zerbitzuek benetan premia-egoera dagoela egiaztatu ondoren emango direla.

Era berean, eta abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 138. artikuluko 2. apartatua aurreikusita-koarekin bat etorriz, gure autonomia-erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak inportatzea, aitortzea eta ordaintzea, zehatzeko ahala erabiltzea, bai eta GLLen onuradunen jarraitapena egitea ere; horretarako, aldeztu behar da jakin behar dute zein den baliabidearen urteko muga, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako berariaz ezarritako guztizko aurrekontu-izendapenen barruan.

Bestalde, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 57. artikulua GLL gisa emandako prestazioen zenbatekoak finkatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak zehazten ditu. Zehazki, 1. paragrafoan jasota dago inola ere gainditu ezin izango diren mugetako bat. Oro har eta aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako erregelamendu bidez ezartzen diren gehieneko zenbatekoak osatzen dute muga hori.

Aurrekoa esanda, adierazi behar da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen dela gizarteratzea gizarte-babeseko hainbat sistema eta politika publikok partekatzen duten helburu bat dela; horien artean dago Gizarte Zer-

bitzuen Euskal Sistema, lehen aipatutako helburua lortzen lagunduko duena, dagozkion xedeen eta egitekoen esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 1. paragrafoan agintzen denez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta; sistema horren funtsezko helburua da, besteak beste, larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonalak eta familiarrak prebenitzea eta haiei erantzutea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15.d) artikulua araber, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari dagozkio ongizateari eta gizarte-zerbitzuei buruzko eginkizunak.

Horiek horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen 8/2024 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, 41.500.000 euroko ordainketa-kreditu bat dago gizarte-larrialdietarako laguntzetarako, agindu honetan esleitzen dena.

Urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoak, programari esleitutako urteko baliabideak banatzeko eta udalei transferitzeko prozedura ezartzen du. Baliabideen banaketa printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero, GLLen zenbatekoak ordaintzeko beharrezko baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

b) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak horiek aztertu ondoren, gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak irizpideak urtero zehaztuko ditu, beharrianen adierazleei begira batez ere, finkatzeko nola banatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua autonomia-erkidegoko lurralde historikoen eta udalerrien artean.

c) Erreferentziako irizpideak aplikatzeko, udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko da, eta horren berri emango da EHAAr urtero argitaratuko den agindu baten bitartez.

d) Erreferentziako irizpideen aplikazioan oinarrituta, udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga finkatu ondoren, udal bakoitzari esleitutako zenbatekoa transferituko zaio. Transferentziak hiru hilean behin egingo dira, eta batera egin ahal izango dira bi alderdiak: premia-adierazleei erantzuten dien zatia eta, zenbatekoak ezagututakoan, aurreko ekitaldiko GLLen emakida-adierazleei erantzuten dien zatia.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta, eta kontuan hartuz, horretarako, udalek bidalitako dokumentazioa.

GLLetara bideratutako baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak banatu behar dizkie udalei, salbu eta udalek beste prozedura bat adostu badute dagokien foru-aldundiarekin edo mankomunitateen bidez, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen seigarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik. Lege horrek aukera ematen die aldundiei edo udalaz gaindiko entitateei laguntzak zuzenean ordaintzeko, baldin eta udalek partzuergo, mankomunitate edo bestelako formulen bidez partekatutako kudeaketa-formuletara jo badute, edo Aldundiak bere gain hartutako prestaziora jo badute.

Horregatik guztiagatik, eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren esparruan, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak, gizarte-zerbitzuen esparruan, dituzten eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2025eko ekitaldirako gizarte-larrialdietarako laguntzetan (GLL) bildutako berariazko gastu bakoitzari orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatzea eta laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari urte honetan dagokion aurrekontu-muga zehazten da.

2. artikulua.– Urteko gehieneko zenbatekoak.

1.– 2025erako, honako hauek dira gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetza-unitate bakoitzeko (aurrerantzean, BU), aurreko artikuluan aipatutako berariazko gastu bakoitzera bideratuak:

a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak:

1. Alokairu-gastuengatik:

A) Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakarrek etxebizitza koerrentatu edo azpierreantatu badu, hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, koerrentan edo azpierreantatutako ordaindutako prezioaren % 70.

B) Etxebizitza koerrentatu edo azpierreantatu bada, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarreko araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetza-unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetza-unitaterentzako hilean 150 euro emango da gehienez, eta bien artean ezingo dute gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

C) Etxebizitzan ostatu- edo apopilo-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin daitezke, lehen esandakoaren arabera, eta hilean 150 euroko laguntza emango da gehienez.

D) Legez eratutako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 300 euro emango da gehienez. Kasu horretan, BUen muga ez da bi izango, baizik eta establizimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.

2. Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik hilean 300 euro emango da gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

3. Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eragindako energia-gastuengatik, urtean 1.500 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 750 euro gehienez.

4. «Linea zuriko» etxetresna elektrikoen eta altzarien gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

5. Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BU baldin badira, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

6. Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuengatik, urtean 900 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450 euro gehienez. Kontzeptu honek honako gastu hauek hartzen ditu barnean: ura, zaborrak, estolderia, ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak —ondasunak landa- zein hiri-eremukoak izan — eta jabekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.

7. Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako ezohiko gastuengatik, hala nola fidantza, horniduretan alta ematea, egokitzapena eta beste batzuk, urtean gehienez 1.800 euro. Bi bizikidetza-unitateren kasuan, bakoitzari gehienez 900 euro urtean.

b) Bizikidetza-unitateko kide baten edo gehiagoren oinarrizko premiei dagozkien gastuengatik, hala nola sistema publikoek estaltzen ez dituzten jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-laguntza, gehienez 2.500 euro urtean.

c) Aurretiko zorpetze-gastuengatik, gehienez 3.000 euro urtean. Bi bizikidetza-unitateren kasuan, urtean 1.500 euroraino bakoitzari.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, 2.1.a) eta 2.1 b) artikuluan aipatutako kontzepturen batek eragindako aurretiazko zorpetze-gastuengatik urteko gehieneko zenbatekoek ezingo dituzte gainditu, kasu bakoitzean, aipatutako paragrafoetan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak.

2.— Nolanahi ere, GLLak jasotzea, 2.1.a) artikuluan aipatzen diren kontzeptuetan (ohiko bizitokia eta mantenua izateko beharrezkoak diren gastuak), ez da bateragarria etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarekin (aurrerantzean, EPO).

Era berean, 2.1.a) 1 artikuluan aipatzen den kontzeptuan (alokairu-gastuak) GLLak jasotzea bateraezina da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean (aurrerantzean, EPE) etxebizitza legez okupatzeko aurreikusitako eskubide subjektiboa betetzera bideratutako etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduan (Gaztelagun Programako etxebizitza alokatzeko laguntzak arautzen dituen) aurreikusitako laguntzekin eta 2025eko ekitaldian aurreikus daitezkeen ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza librea alokatzeko beste laguntza batzuekin.

3.— Eskabide bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko bat aplikatuko da, eskatzailearen eta haren bizikidetza-unitateko gainerako kideen diru-sarreraren arabera kalkulatu, bai eta unitate hori osatzen duten kideen guztizko kopuruaren arabera ere, artikuluan honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko zenbatekoaren gainean, edo benetako gastuaren zenbatekoaren gainean, baldin eta gastu hori kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbateko hori baino txikiagoa bada, gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuaren 10.2 artikuluan adierazitakoaren arabera. I. eranskinean, gehieneko errenta bermatua eta kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoaren portzentaje aplikagarria kalkulatzeko modua jasotzen da.

4.— Kasu partikular bakoitzean aplika daitekeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; kasu horretan, eskatzaile guztien eskariei modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboa murriztu beharko da kontzeptu bakoitzarengatik eman daitekeen gehieneko zenbatekoa.

3. artikulua.— Eskabide-metaketa eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eska ditzaketen bizikidetza-unitateen gehieneko kopurua.

Etxebizitza berean bizi diren bizikidetza-unitateei gehienez ere bi gizarte-larrialdietarako laguntza emango zaizkie.

GLLen bi eskabide baino gehiago metatzen badira, eskabidearen antzinasun-ordenaren arabera erantzungo da, salbu eta gizarte-zerbitzuek bestelako irizpide bat ematen badute, gizarte-txostenean adierazitakoari jarraikiz.

4. artikulua.— Kredituak banatzeko irizpideak.

1.— Gizarte-larrialdietarako laguntzak estaltzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak honako adierazle hauen arabera finkatuko dira 2025erako:

a) 2024ko urriaren 31ko premia-adierazleak.

b) 2024ko ekitaldiko GLLen emakida-adierazleak, 2024ko abenduaren 31ra arteko datuak jasotzen dituztenak.

2.— Kredituei dagokienez, 4.1.a) artikulurako 37.000.000 euro esleitu dira, eta 4.1 b) artikulurako, berriz, 4.500.000 euro. Kreditu horiek agindu honen II. eranskinean ezarritakoaren arabera banatuko dira.

3.— Premia-adierazleei erantzuten dieten banaketa-irizpideak parametro hauen arabera finkatuko dira 2025erako:

– 2024ko urriaren 31n, udalerrian diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten unitateen kopurua.

– 2024ko urriaren 31n, udalerrian Lanbiden inskribatuta dauden baina diru-sarrerak bermatzeko errentarik edo bestelako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopurua.

4.— Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, premia-adierazleei dagokienez, 400 biztanle baino gutxiagoko udalerriei udalerri horiei guztira legokiekeen zenbatekoaren batezbestekoaren zenbateko baliokidea bermatzen zaie gizarte-larrialdietarako laguntzen programa egikaritzeko.

5.— GLLen emakida-adierazleei erantzuten dieten banaketa-irizpideak parametro hauen arabera finkatuko dira 2025erako:

– 2024ko ekitaldian udalerrian esleitutako zenbatekoa.

– 2024ko ekitaldian udalerrian justifikatutako zenbatekoa.

– Udalerriaren tamaina, biztanle-kopuruaren arabera; udalerri txikitzat joko da 20.000 biztanle baino gutxiago dituen, eta udalerri handitzat, berriz, 20.000 biztanle edo gehiago dituen.

Banatzeko kantitatea metodo honen arabera kalkulatu da:

a) 2024ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren berdina edo txikiagoa justifikatu duten udalerrien kasuan, zenbatekoa zero izango da.

b) Udalerri txikietan, zenbatekoa hau izango da: 2024ko ekitaldian justifikatutako zenbatekoaren eta udalerrian esleitutakoaren arteko aldearen % 66, 2024ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gehienez ere.

c) Udalerrri handietan, zenbatekoa hau izango da: 2024ko ekitaldian justifikatutako zenbatekoaren eta udalerrrian esleitutakoaren arteko aldearen % 50, 2024ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gehienez ere.

Aurrekoa gorabehera, koefiziente zuzentzaile bat aplikatuko da GLLen emakida-adierazleentzat gordetako zenbateko osoa banatu ahal izateko, soberakinik gera ez dadin eta partida handitu beharrik izan ez dadin, betiere udalerrriari banatutako kopuruak 2024ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gainditzen ez badu.

5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

Premia-adierazleei buruzko 4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatuta, 2025eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzari dagozkion gizarte-larrialdietarako laguntzen programa gauzatzeko aurrekontu-mugak ezarri dira; agindu honen II. eranskinean daude.

6. artikulua.– Udalaz gaindiko beste entitate batzuen bidezko banaketa.

Foru-aldundira edo partzuergoen, mankomunitateen edo gizarte-larrialdietarako laguntzetara bideratutako baliabide ekonomikoak banatzeko beste formula batzuen bidez partekatutako kudeaketa-formuletara jotzen duten udalek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi beharko diote, udalaz gaindiko entitate horiei transferitu diezazkien udal bakoitzari esleitutako zenbatekoak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko Dekretuaren 33. artikuluan aipatzen diren datuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema araututa eta funtzionamenduan ez dagoen artean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan bidaliko dira (2004ko urriaren 8ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Oinarrizko Errentaren eskabide-eredu berria argitaratzeko eta prestazio honi buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzea arautzeko dena; 2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.); bestela, aipatutako aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bidez bidaliko dira, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak zehazten duen moduan, datuen edukiari buruz aipatutako 33. artikuluan zehazten diren eskakizunak beteta, betiere.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 7a.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

GEHIENEO ERRENTA BERMATUA KALKULATZEKO ZENBATEKOAK ETA KONTZEPTU BAKOITZEKO GEHIENEO ZENBATEKOAREN EHUNEO APLIKAGARRIA

I.1.– Gehieneko errenta bermatua kalkulatzeko zenbatekoak.

Bizikidetza-unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua (GEB) oinarrizko zenbatekoari, bizikidetza-unitateko kide bakoitzeko banakako osagarriari eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriari lotutako osagarriari dagozkien zenbatekoen baturak zehazten du.

Oinarrizko zenbatekoa, hilerro erreferentziazatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak zehaztuko du.

I.2.– Kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoaren ehuneko aplikagarria.

Bizikidetza-unitate espezifiko baterako gehieneko zenbatekoaren ehunekoen taula egiteko, nahikoa da 14/2022 Legearen 32., 33. eta 34. artikuluen arabera bizikidetza-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatua (GEB) kalkulatzeko eta honako formula hau aplikatzeko:

BU	
Urteko diru-sarreraren muga, GEBaren arabera, eurotan	
Gehieneko % aplikagarria	GEB
% x	= BIRIBILDU $((200-x)*GEB*12/100;2)$

NON x = 100, 99, 98..., 50.

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO ETA UDAL BAKOITZARI 2025.
URTERAKO DAGOKION AURREKONTU-MUGA

ARABA/ÁLAVA

Udalerrria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Agurain/Salvatierra	96.790,00	0,00	96.790,00
Alegria-Dulantzi	53.451,00	0,00	53.451,00
Amurrio	165.771,00	15.823,00	181.594,00
Añana	2.462,00	0,00	2.462,00
Aramaio	8.668,00	0,00	8.668,00
Armiñón	2.462,00	0,00	2.462,00
Arraia-Maeztu	8.307,00	0,00	8.307,00
Arratzua-Ubarrundia	5.779,00	0,00	5.779,00
Artziniega	36.477,00	0,00	36.477,00
Asparrena	24.197,00	0,00	24.197,00
Ayala/Aiara	32.865,00	0,00	32.865,00
Baños de Ebro/Mañueta	6.140,00	0,00	6.140,00
Barrundia	3.612,00	0,00	3.612,00
Berantevilla	4.695,00	0,00	4.695,00
Bernedo	4.695,00	0,00	4.695,00
Campezo/Kanpezu	10.835,00	0,00	10.835,00
Elburgo/Burgelu	3.250,00	0,00	3.250,00
Elciego	11.196,00	0,00	11.196,00
Elvillar/Bilar	3.973,00	0,00	3.973,00
Erriberagoitia/Ribera Alta	7.945,00	0,00	7.945,00
Harana/Valle de Arana	2.462,00	0,00	2.462,00
Iruña Oka/Iruña de Oca	62.841,00	0,00	62.841,00
Iruraiz-Gauna	3.973,00	0,00	3.973,00
Kripan	2.462,00	0,00	2.462,00
Kuartango	5.779,00	0,00	5.779,00
Labastida/Bastida	28.893,00	0,00	28.893,00
Lagrán	2.462,00	0,00	2.462,00
Laguardia	11.918,00	0,00	11.918,00
Lanciego/Lantziego	14.446,00	0,00	14.446,00
Lantarón	9.029,00	0,00	9.029,00
Lapuebla de Labarca	18.780,00	0,00	18.780,00
Laudio/Llodio	285.314,00	0,00	285.314,00
Legutio	39.005,00	0,00	39.005,00
Leza	2.889,00	0,00	2.889,00
Moreda de Álava/Moreda Araba	4.695,00	0,00	4.695,00
Navaridas	2.889,00	0,00	2.889,00
Okondo	14.446,00	0,00	14.446,00
Oyón-Oion	71.148,00	0,00	71.148,00
Peñacerrada-Urizaharra	2.462,00	0,00	2.462,00

Udalerrria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Ribera Baja/Erribera Beitia	18.058,00	0,00	18.058,00
Samaniego	4.334,00	0,00	4.334,00
San Millan/Donemiliaga	4.334,00	0,00	4.334,00
Urkabustaiz	25.281,00	0,00	25.281,00
Valdegovía/Gaubea	14.807,00	0,00	14.807,00
Villabuena de Álava/Eskuernaga	2.889,00	0,00	2.889,00
Vitoria-Gasteiz	5.008.521,00	1.194.306,00	6.202.827,00
Yecora/Iekora	4.334,00	0,00	4.334,00
Zalduondo	3.612,00	0,00	3.612,00
Zambrana	7.223,00	0,00	7.223,00
Zigoitia	11.918,00	0,00	11.918,00
Zuia	18.419,00	0,00	18.419,00
Total Araba/Álava	6.203.193	1.210.129	7.413.322

BIZKAIA

Udalerria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Abadiño	96.068,00	39.398,00	135.466,00
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	194.663,00	19.525,00	214.188,00
Ajangiz	2.528,00	0,00	2.528,00
Alonsotegi	67.536,00	0,00	67.536,00
Amorebieta-Etxano	249.920,00	93.817,00	343.737,00
Amoroto	2.889,00	0,00	2.889,00
Arakaldo	2.528,00	0,00	2.528,00
Arantzazu	2.528,00	0,00	2.528,00
Areatza	20.586,00	4.756,00	25.342,00
Arrankudiaga	11.557,00	0,00	11.557,00
Arratzu	3.250,00	780,00	4.030,00
Arrieta	5.056,00	0,00	5.056,00
Arrigorriaga	206.582,00	0,00	206.582,00
Artea	10.835,00	3.163,00	13.998,00
Artzentales	14.446,00	0,00	14.446,00
Atxondo	10.112,00	5.662,00	15.774,00
Aulesti	5.417,00	0,00	5.417,00
Bakio	38.283,00	0,00	38.283,00
Balmaseda	179.495,00	689,00	180.184,00
Barakaldo	1.918.103,00	287.600,00	2.205.703,00
Barrika	18.058,00	0,00	18.058,00
Basauri	768.903,00	21.863,00	790.766,00
Bedia	16.613,00	2.393,00	19.006,00
Berango	83.427,00	0,00	83.427,00
Bermeo	305.539,00	0,00	305.539,00
Berriatua	13.363,00	4.534,00	17.897,00
Berriz	58.869,00	21.627,00	80.496,00
Bilbao	8.143.722,00	0,00	8.143.722,00
Busturia	25.642,00	3.916,00	29.558,00
Derio	83.788,00	9.063,00	92.851,00
Dima	16.613,00	798,00	17.411,00
Durango	383.187,00	138.991,00	522.178,00
Ea	13.363,00	0,00	13.363,00
Elantxobe	3.250,00	580,00	3.830,00
Elorrio	66.092,00	20.540,00	86.632,00
Erandio	418.219,00	47.028,00	465.247,00
Ereño	2.462,00	0,00	2.462,00
Ermua	259.311,00	0,00	259.311,00
Errigoiti	6.501,00	1.753,00	8.254,00
Etxebarri	151.325,00	32.763,00	184.088,00
Etxebarria	10.112,00	2.871,00	12.983,00
Forua	9.751,00	3.562,00	13.313,00
Fruiz	7.945,00	0,00	7.945,00

Udalerria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Galdakao	295.606,00	105.481,00	401.087,00
Galdames	11.557,00	3.884,00	15.441,00
Gamiz-Fika	13.363,00	0,00	13.363,00
Garai	2.462,00	780,00	3.242,00
Gatika	18.419,00	0,00	18.419,00
Gautegiz Arteaga	7.945,00	0,00	7.945,00
Gernika-Lumo	223.917,00	0,00	223.917,00
Getxo	1.002.932,00	228.583,00	1.231.515,00
Gizaburuaga	2.462,00	0,00	2.462,00
Gordexola	19.141,00	6.486,00	25.627,00
Gorliz	89.928,00	0,00	89.928,00
Güeñes	126.405,00	37.748,00	164.153,00
Ibarrangelu	9.751,00	988,00	10.739,00
Igorre	65.008,00	23.724,00	88.732,00
Ispaster	4.334,00	0,00	4.334,00
Iurreta	63.202,00	20.927,00	84.129,00
Izurtza	3.250,00	673,00	3.923,00
Karrantza Harana/Valle de Carranza	55.257,00	0,00	55.257,00
Kortezubi	5.056,00	0,00	5.056,00
Lanestosa	3.973,00	0,00	3.973,00
Larrabetzu	19.141,00	2.719,00	21.860,00
Laukiz	9.390,00	0,00	9.390,00
Leioa	498.396,00	54.214,00	552.610,00
Lekeitio	76.204,00	27.065,00	103.269,00
Lemoa	62.841,00	20.029,00	82.870,00
Lemoiz	18.419,00	0,00	18.419,00
Lezama	26.726,00	2.719,00	29.445,00
Loiu	21.669,00	0,00	21.669,00
Mallabia	13.363,00	2.358,00	15.721,00
Mañaria	3.973,00	0,00	3.973,00
Markina-Xemein	52.729,00	22.192,00	74.921,00
Maruri - Jatabe	6.501,00	0,00	6.501,00
Mendata	6.501,00	308,00	6.809,00
Mendexa	2.528,00	0,00	2.528,00
Meñaka	2.528,00	865,00	3.393,00
Morga	4.334,00	0,00	4.334,00
Mundaka	15.530,00	2.439,00	17.969,00
Mungia	258.949,00	0,00	258.949,00
Munitibar -Arbatzegi Gerrikaitz-	5.779,00	679,00	6.458,00
Murueta	2.462,00	855,00	3.317,00
Muskiz	118.459,00	49.965,00	168.424,00
Muxika	16.613,00	0,00	16.613,00
Nabarniz	3.612,00	0,00	3.612,00
Ondarroa	109.069,00	44.832,00	153.901,00
Orozko	37.560,00	2.546,00	40.106,00

Udalerria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Ortuella	187.440,00	50.750,00	238.190,00
Otxandio	18.419,00	6.621,00	25.040,00
Plentzia	55.979,00	0,00	55.979,00
Portugalete	911.560,00	0,00	911.560,00
Santurtzi	1.050.605,00	10.917,00	1.061.522,00
Sestao	719.424,00	225.132,00	944.556,00
Sondika	55.257,00	0,00	55.257,00
Sopelana	196.108,00	0,00	196.108,00
Sopuerta	38.283,00	11.779,00	50.062,00
Sukarrieta	3.973,00	0,00	3.973,00
Trucios-Turtzioz	12.640,00	2.265,00	14.905,00
Ubide	2.889,00	701,00	3.590,00
Ugao-Miraballes	61.397,00	0,00	61.397,00
Urduliz	61.758,00	0,00	61.758,00
Urduña/Orduña	84.150,00	21.503,00	105.653,00
Usansolo	43.159,00	13.055,00	56.214,00
Valle de Trapaga-Trapagaran	205.859,00	2.567,00	208.426,00
Zaldibar	42.978,00	17.572,00	60.550,00
Zalla	158.909,00	64.362,00	223.271,00
Zamudio	44.783,00	16.985,00	61.768,00
Zaratamo	23.114,00	9.278,00	32.392,00
Zeanuri	10.835,00	3.687,00	14.522,00
Zeberio	13.724,00	4.869,00	18.593,00
Zierbena	18.419,00	6.563,00	24.982,00
Ziortza - Bolibar	3.251,00	0,00	3.251,00
Total Bizkaia	21.350.594	1.899.337,00	23.249.931

GIPUZKOA

Udalerrria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Abaltzisketa	2.462,00	0,00	2.462,00
Aduna	3.612,00	0,00	3.612,00
Aia	18.058,00	34,00	18.092,00
Aizarnazabal	7.223,00	0,00	7.223,00
Albiztur	2.462,00	780,00	3.242,00
Alegia	22.392,00	0,00	22.392,00
Alkiza	2.528,00	0,00	2.528,00
Altzaga	2.462,00	0,00	2.462,00
Altzo	4.334,00	0,00	4.334,00
Amezketza	10.835,00	0,00	10.835,00
Andoain	207.665,00	0,00	207.665,00
Anoeta	25.281,00	0,00	25.281,00
Antzuola	18.419,00	0,00	18.419,00
Arama	2.462,00	0,00	2.462,00
Aretxabaleta	66.814,00	0,00	66.814,00
Arrasate/Mondragón	330.097,00	45.730,00	375.827,00
Asteasu	11.557,00	0,00	11.557,00
Astigarraga	72.592,00	13.835,00	86.427,00
Ataun	12.640,00	4.413,00	17.053,00
Azkoitia	150.602,00	27.122,00	177.724,00
Azpeitia	194.663,00	72.116,00	266.779,00
Baliarrain	2.528,00	0,00	2.528,00
Beasain	166.132,00	0,00	166.132,00
Beizama	2.462,00	0,00	2.462,00
Belauntza	3.250,00	0,00	3.250,00
Berastegi	3.973,00	743,00	4.716,00
Bergara	166.132,00	0,00	166.132,00
Berrobi	5.417,00	62.330,00	67.747,00
Bidania-Goiatz	4.334,00	1.305,00	5.639,00
Deba	48.395,00	0,00	48.395,00
Donostia / San Sebastián	2.305.986,00	453.968,00	2.759.954,00
Eibar	518.260,00	39.102,00	557.362,00
Elduain	2.462,00	0,00	2.462,00
Elgeta	8.307,00	2.824,00	11.131,00
Elgoibar	169.021,00	9.512,00	178.533,00
Errenteria	605.660,00	236.458,00	842.118,00
Errezil	5.779,00	0,00	5.779,00
Eskoriatza	54.896,00	17.624,00	72.520,00
Ezkio-Itsaso	2.528,00	0,00	2.528,00
Gabiria	2.889,00	0,00	2.889,00
Gaintza	2.462,00	0,00	2.462,00
Gaztelu	2.462,00	0,00	2.462,00
Getaria	24.920,00	6.971,00	31.891,00

Udalerrria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Hernani	297.232,00	15.654,00	312.886,00
Hernalde	2.528,00	0,00	2.528,00
Hondarribia	163.243,00	30.524,00	193.767,00
Ibarra	52.007,00	0,00	52.007,00
Idiazabal	13.724,00	0,00	13.724,00
Ikaztegieta	8.668,00	0,00	8.668,00
Irun	1.039.048,00	0,00	1.039.048,00
Irura	22.392,00	0,00	22.392,00
Itsasondo	8.668,00	4.194,00	12.862,00
Larraul	2.462,00	0,00	2.462,00
Lasarte-Oria	245.948,00	5.949,00	251.897,00
Lazkao	56.340,00	1.168,00	57.508,00
Leaburu	4.334,00	0,00	4.334,00
Legazpi	97.151,00	0,00	97.151,00
Legorreta	11.196,00	1.088,00	12.284,00
Leintz-Gatzaga	2.462,00	0,00	2.462,00
Lezo	77.649,00	29.230,00	106.879,00
Lizartza	7.945,00	5,00	7.950,00
Mendaro	28.170,00	10.600,00	38.770,00
Mutiloa	2.462,00	0,00	2.462,00
Mutriku	61.397,00	9.126,00	70.523,00
Oiartzun	99.318,00	0,00	99.318,00
Olaberria	8.668,00	15,00	8.683,00
Oñati	91.373,00	35.971,00	127.344,00
Ordizia	161.798,00	26.290,00	188.088,00
Orendain	2.462,00	0,00	2.462,00
Orexa	2.462,00	0,00	2.462,00
Orio	71.148,00	24.991,00	96.139,00
Ormaiztegi	12.279,00	4.579,00	16.858,00
Pasaia	308.067,00	119.977,00	428.044,00
Segura	10.112,00	2.993,00	13.105,00
Soraluze-Placencia de las Armas	91.734,00	0,00	91.734,00
Tolosa	247.392,00	0,00	247.392,00
Urnietta	63.564,00	26.138,00	89.702,00
Urretxu	80.538,00	0,00	80.538,00
Usurbil	65.369,00	0,00	65.369,00
Villabona	89.928,00	0,00	89.928,00
Zaldibia	16.613,00	0,00	16.613,00
Zarautz	191.413,00	3.744,00	195.157,00
Zegama	11.557,00	3.951,00	15.508,00
Zerain	2.462,00	0,00	2.462,00
Zestoa	46.228,00	18.288,00	64.516,00
Zizurkil	36.116,00	0,00	36.116,00
Zumaia	102.569,00	0,00	102.569,00

Udalerria	2025eko esleipena (eurotan)	Udalen 2024ko ekarpena (eurotan)	2025eko esleipena, Guztira
Zumarraga	150.602,00	21.192,00	171.794,00
Total Gipuzkoa	9.446.213	1.390.534,00	10.836.747
EAE, guztira	37.000.000	4.500.000	41.500.000